


# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

270n. zenbakia  
zezeilla 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE




**EJIPTO IKUSGARRIA!!!**

- PIRAMIDEAK (TXUNTXURRAK)
- ESFINJEA (LEOI-ANDEREA)

*Zer nolako zortea  
gure hizkuntzarena,  
mila iturritatik  
edaten duma.  
Euskararik onena  
da norberarena,  
eta txarrena, berriz,  
egiten ez dena.*

**Xabier Euskitze,**  
*2001 eko arriaren 18a*

euskararik onena **zeurea**



E

Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia



**Bizkaia**

# LEGE ZARRA KENTZEN (1839-1876)

## 1.- AURREKO ZURRUMURRUAK

Jakina da euskaldunak, onein artean bizkaitarrak, antxiñatik geure buruaren jabe izan eta, bear ba'da zortzigarren gizaldian asita, geure batzarretan geure legeak egin doguzala. Baiña, Erdi-Aroan asita gaur arte, Españak ez dan begi onez ikusi buru-jabetza au eta bere legepera sartzen alegiñak egin dauz eta egiten dauz: Bizkaiko jauntza eskuratu eben 1379n. urtean, ezkontzaren bidez Gaztelako errege eta Bizkaiko Jaun izango ziranen artean ezkontza eginda, orrelan ondorengoa errege ta Bizkaik Jaun izan daiten Gernikako batzarretan onartua ba'da. Gero Jaunaren eskubideak bide dirala, Batzarretan Korrexidorea ipiñita, eta abar.

Baiña orretarako alegiñik aundienak XIX gizaldian asita egin ziran. Idaz-lan batzuk gai oneri buruz egitea bururatu jat Mercedes Vazquez de Prada'rena dan "Negociaciones sobre los fueros entre Vizcaya y el poder central (1839-1877)" deritxon liburuari jarraituz.

Lenengo idaz-lan onetan 1939n. urte ori baiño urte batzuk lenago jazoriko gauzak gogoratuko dodaz.

### BORBOIEN ERREGE ETXEA

Austriatarren Errege-Etxea izan zan agintari Españan eta etxe onetako erregeak naikoa itzaltasunez begiratzen eutsoen gure legegintzari, naizta beti alegindu musturra sartzen.

1700n. urtean sartu ziran agintzera Borboitarrak, Frantze'tik etorriak eta berez agintaritzat ardatz baten menpean eukitearen lagunak. Baiña Kataluñan be arazo larriak izan ebezan eta ez ziran ausartu argi-argi gure aurka jokatzan. Ez gogo onez, baiña Lege Zarra onartu eben.

### VII FERNANDO ETA NAPOLEON

Errege borboi onen aldi askotariko goraberak izan ziran eta Españako agintaritzat zelan, gure Lege Zarra alan, ibili gintzazan: Gaur kendu, biar barriro onartu, eta orrelan Lege Zarraren ziurtasuna zalantzarat sartzen joan ziran 1804n. urte inguruan. Erregea bera be txarto ibilli zan, batzutan agintaritzat osoa bere eskuan ebalat beste batzutan Laterri-Legearen azpian.

VII Fernando errege izendatu ondoren laster Napoleonek etorri zan eta onek Lege Zarra kendu egin eban.

### KADIZ'KO KORTEAK

Kadizko korteetan ba-ziran Bizkaiko ordezkariak baiña oso makal jokatu eben. Aldi txarra izan zan be. Antxe lenengoz Bizkaiari emon eutsoen "probintzi" izena eta antxe galdu "Jaunerri" izena. Korrexidorearen ordezkari Gobernatzaillea ipiñi euskuen, baiña ez zan bein betiko gauzea izan. Geroago be barriro Lege Zarra aske itziko dabe beste agintari batzuk, esango dogun lez: Erregeak mesede egitearren emon egiten euskun lege zarraren eskubidea: Ori ez da Lege Zarra, beste era bateko "forua" baiño.

### BEIÑENAK

Gogoratu daiguzan zeintzuk ziran espaiñatarrai miñik geien emoten eutsen berezitasunak, labur-labur:

Lenengo Gernikako batzarrak eta bertan legeak egitea eta kanpotik datorren edozein aginduri "foni-baimena" edo "pase foral" ezarteko eskubidea.

Bigarren soldaduskatik aske izatea, Bizkai'tik kanpora joatekotan ordainduta dala.

Irugarren sal-eroskeratarako askatasuna, aduanak Ebro ibaiaren inguruan, Orduñan eta Balmasedan dirala.

Laugarren ezelako zerga barririk ezin ezarri izatea. Bostgarren, epailariak bertokoak izatea. Eta alkatteak Gernikarako aukeratzea.

### GUZTIAK BARDIN

Españatarren jokabidea beti eta batez be urte orrietan, ezbardintasun orreik kentzekoa izango da. Orreik gure aldeko lege bereizi edo "pribilegioak" dirala diño eta guztiak bardiñak izan bear dogula legeen aurrean. Guk, ostera, gure betiko eskubideak eta kendu-eziñak dirala erantzun izan dogu beti.

Eurak indarrez beti izan dira gu baiño geiago, baiña guk errazoia euki dogu geure alde eta orretan diardugu gaur be.

## ZARRAK ANTIXINA ETA GAUR

ITZALDIA: FRUNIZ'EN 2002-0-15 (5'ETAN)

### 1.1- EDESTIA:

Adiskideok: Emen gagoz barriro alkartuta geure bizitza ta arazoak aztertzeko. Iru urrats emongo doguz itzaldiaren 1.- arlo onetan edestia: 1.- Moises-Eleizea, Erriak eta 2.- Adiñekoen egoera gaur eta 3.- Gaur zer egin.

Erri guztietan izan dira zarrak edo, orain esaten dan lez, adintsuak, onartuak eta itzaltasunaz begiratuak. Baiña goazen urregonrik urregora.

1.1 **Moises:** Ara zer diñon liburu santuak Moises'en denporan. Ordurik ona 3.500 urte inguru igaro dira. Baiña orduan zarrak agintariaren laguntzaille biurtu ziran. Bibliak Zenbakien liburuan 26, 47-48'an.

"Batu egistazuz Israel guztitik irurogeta amar zar, zeuk ezagutzen dozuzen erriko zarrak eta idazleak. Eroan egizuz Batzar-Txabolara eta antxe egon daitezela zeugaz. Neu joango naz ara zugaz berba egiteko eta zugan dagon Espirituaren zati bat artu dot eta eurengan ipiñiko dot Espiritu ori eta eurak zugaz batera eroango dabe erriaren astuntasuna. Orrelan ez dozu zeuk bakarrik croan bear-ko karga ori".

Ordutik aurrera irurogeta amar zarrak erriko agintarien laguntzaille ziran eta orrean taldeak "sanedrin aundia" eukan izena.

Talde orrek asko lagundu eban erria zaintzen eta errian goratuak ziran. Baiña zarrak iñoz eukiten dogun gaiso batera jausi ziran Jesus etorri zanean: Gauza barriak ezin onartu! Eurak izan ziran Jesus ilteko erabagia artu ebenak, naizta Kaifas abadeak orretarako bultzatu:

"Jesus baitu ebenak Kaifas abade nagusiaren etxera eroan eben eta antxe egozan alkartuta idazleak eta zarrak... Abade nagusiak eta "sanedrin"ak guzurrezko salakuntza billatzen eben Jesus eriotzara eroateko... Abade Nagusiak bere soiñekoak urratu eta esan eban: "Biraua esan dau!.. Zer deritxazua? Eta eurak erantzun eben: "I1 egin bear da!"

1.2. ELEIZAN: Guri abadeoi "presbitero" esaten jaku

### 1.3. ERRIETAN.

Ez Eleizan bakarrik. Errietan be zarrak onartuak izan dira, jakitunak diralako, jakitunak bizi-ikasian eta jakitunak zurtasunean.

1.3.1. **Erroman.** Erroma izan da munduko angitaritzan geien jakin eta irakatsi dauana. Beste gauza batzutan Greziatik artu eben dana: edertia, oiturak eta abar. Baiña legegintzan munduko jakitunenak izan ziran. Eta nork egiten

ebazan Erroman legeak: Senadua. Eta senadua ez da berterik zarren taldea baiño. Latinez "senex" zarra da.

Eta ez Erroman bakarrik. Gaurko laterrietan be "senadua" edo "zarren taldea" dago legeak onartzeko. Ez dira beti zarrak izaten, baiña gazteak be ez.

### 1.3.2.: "Señor"

Euskaldunak etxean naiz errian garrantzizkoa danari "fauna" esaten dautsagu. Ez dakigu itz orrek zer exan gura dauan, baiña erdeldunak "Señor" esaten dautsoe eta "Señor" berba onek len esan dogun "presbitero" bera esan gura dau. Presbitero gerkeraz eta "senior" latinez. Orrelan ba, errian ezer ziranak "zarrena" izena croan dabe beti gure errikan kanpora.

### 2.1. ADIÑEKOEN EGOERA GAUR

Zarrak beti izan daben izen ona, galtzen joan da edestian zear eta gaur iñok ez dau esango "ni zarra naz" orrelan bere burua goratzeko. Ori lenago zan. Gaur "zarra" berbea be alboratu egin bear da, lotsagarria dalako-edo eta adiñekoa edo "irugarren adiñekoa" esan. Zergaitik irugarrena? Frantzia'tik artu dogu ori. An erriarrak agintzera sartu ziran "irugarren Estadu" ziran lez, gaur "Irugarren Adiñekoak" garanok asko gara eta garrantzia ortik datorku.

Antxiñako euskaldunentzat etxeko jauna, zarra geiago, itzaltasun aundiaz artzen zan eta bera zan danaren jabe.

Zer pentsaten eben gazteak ezkontzen ziran? Beste etxe batera joaten ziran bizi izaten edo lengo etxean jarraitzen ba'eben, zarraren menpean egozan isil-isilik. Esatera-ko Batiz'ko zarrak etxe barri bi egin ebazan bere seme-alabentzat: Goiko eta Beko Batiz. Eta orrelan beste etxe askotan.

Aita zarrak ez ebazan izten bere jabetasuna ta eskubiak bizi zan artean. Ori pentsau be ez!

Baiña gaur zarrak zarrago egiten gara eta gazteak lenago datoz aurrera. Zer egin?

### 2.2. URTENBIDEA BASERRIETAN

Gazteen eskubideen arazoa begiratu daigun. lenengo baserrian eta gero kalean.

Baserrietan ezkondu gazteai etxaldea emoteko oiturea be ikusi dogu. Orrelan ez dago etxe barririk egin bearrik.

Eta zarrak zer?

Zarrak urtebide bat aurkitu dabe: Gozamina. Gazteai etxaldea emoten jake jabe izan daitezzen, baiña zarrak bizi diran arterako gozamina artzen dabe, eurentzat eta eurakaz geratzen diran seme-alabentzat: Etxearen zati bat, emona izan arren, eurakaz etxean egon diranak urten egin bear

dabe eta heste bizibide bat billatu, jabe barriak artu nai ez ba'dauz.

Baiña or beste arazo bat sortzen da. Zarrak bakarrik ba'dagoz eta ezintasuna eltzen ba'jake. norik zainduko dauz? Jakiña, jabe izango danak, jabetza baldintza orregaz emoten jako-ta.

Ezkondu gazteak sarritan ezin izaten dabez zarrak zaindu, biak lanean dabilzalako. esaterako. zer egin? Sarritan ez da izango beste biderik Zarren Egoitz batera eroatea baiño. Eta parkatu fraillien ipuiña esateko:

Gurasoak etxean zaindu gura ez ebazan gazte batek bere aita zarra lepoan artu eta Zarren Egoitzera croan ei eban.

Bidean joiazala, semea nekatu egin zan eta aitari esan eutson: Aita ara-emen jesarlekua! Jesarri gaitez an tseden apur bat artezeko.

– Bai, seme.

Eta jesarri ziranean, aitag esan eutson:

– !! Entzuidak! Neuk be neure alta egoitzera croan nijuan eta ementxe, arri onen gaiñean, artu nijuan atsedena!

Semea pentsetan jarri zan eta isil-aldi baten ondoren, aitari esan eutson:

– Aita! Goazen etxera! Nire semeak be beste orrenbeste egin ez dagien!

Egoitzera aita edo ama eroatena, gaur be, ez da ondo ikusia gure giro onetan. Baiña etxeko bizitzea latz biurtzen danean, aitari edo amari tratatu txarra emon baiño oba da Egoitz batera eroatea. Al dala, zarrak etxean zaintzea da onena.

Ba-dakizue oraintxe dagoana amaitzen Mungia'n Zarren Egoitz barria 60 zar inguru artzeko modukoa. Labur esango dautzuet zelan egin dogun: (...)

Beste alde batetik, gaur zarrak daukagun gauza on bat illero eskuratzen dogun zar-sana da. Orregaz zarra etxean artzen dauanari, dana ez ba'da zati on bat, sortzen diran gastuak ordaindu geinkioz. Lenengo zar-sariak kobratzen gure aita eta amaren aldian asi ziran. Oso gitxi zan, baiña pozik artzen eben. Zar-sari ori kobratzeko bideak zabaldu euskuzan Fruiz'tar batek: Konfiterueneko Fabian'ek. Gero neuk be lagundu dautset batzui (emen esan berna-azurra apurtzea eta eskuan kalluak aurkitu eutsoezan "inbalidua"ren kasua).

Cure baserrietan egoera larrian aurkitzen dira mutilzarraz eta neskazarrak zartzaroan. Eta asko dira!

### 2.3. ZARREN URTEBIDEA KALEAN

Baserrietan larriagoa dala dirudi zarren egoerea, baiña kalean bizi diranak be euren arazoak daukez.

Ezkonbarriak curen bizilekua nai izaten dabe. Eta ondo dago, zarrak errez sartzen diralako gazteen bizimoduan. Eta zenbat aldatu dan bizikerea lenagotik gaur-egunera!

Zarrak biak bizi diran eta ezindu barik dagozen artean, ez dago eragozpenik. Baiña beti etorten da ezintasuna, batarena naiz bestearena naiz hiena. or sortzen da bakartadea! Or ezintasuna!

Sarritan urtenbide bakarra Zarren Egoitza izaten da, gazte biak egun guztian lanean dagozelako.

Era bitara artu leike Egoitza: Egunerako bakarrik, eta gaberako etxera ekarri zarra edo zarrak. Edo Egoitzera croan bata edo biak.

Egoitzera eroateko ona emen baldintzak: Zar-saritik %20 izten jake eurari gastuetarako eta bestea Egoitzera emon bear dabe. Dirurik edo ondasunik ba'dabe, ortik ordaindu bear da falta dana, amaitu-arte. Ez dau balio aurretiaz saltzeak edo emoteak. Dana jakiten da! Dana amaitzen danean, Aldundiak edo Udalak emoten dau falta dana, 200.000 pta. inguru izaten da illero ordaintzeko (euroak: 12.000).

Urtenbide ona da. Ez da euki bear bildurrik. Egoerari aurpegia!

### 3.– GAUR ZER EGIN

Esan dogu antxiña zarrak onartuak eta goratuak zirala: Sanedrin, senado, "Señor", etxeko jauna.

Baiña gaur zarrak ez dira onartzen agintzeko. Bai eleizan gotzain izateko eta errian be bai epaikariak-edo izateko. Baiña antxiñako izen ona galdu dogu. Gaur gazteak dira nagusi. Naizta gure ustez gazteria urteakaz osatu bear dan gaisoa izan.

Eta guk zer egin bear dogu gaur?

Apalak izan eta egoera au onartu. Ez daigun esan au: Gu gazteak giñanean, zarrak agintzen eben eta orain gu zarrak garenean gazteak agintzen dabe. Ez dago ain argi gauzea. Guk be euki dogu geure aginte-aldia!

Artu daigun apaltasunaz gure egoera au eta gure gazteai lagundu.

Era bi ikusten dodaz, batez be, gazteai laguntzeko: Lenengoa dirua. Gazteak diru gitxi eukiten dabe eta gastau asko. Biak irabazita be, gu sari bategaz baiño estuago bizi dira. Beste biziera bat da eta zorraz be aundiagoak izaten dira. Al dogun neurrian, guk gitxi gastetan dogu-ta, lagundu dagitsegun.

Nik entzunda daukat or zarrari laguntzen ibilli dan batek esaten eutsela: zuek ez emon ezer gazteai. Gazteak konponduko dira! Zeuek alegindu ondo bizi izaten! Nik ez doñotzuet olakorik. Lagundu zuen gazteai!

Eta ez da dirua, beste barik. Zuen bizi-ikasiak be asko balio dau eurentzat. Zuek esan, leun eta gozo, bizi-modua zer dan eta gaurko ibillereak zer ekarri leiken.

Ez dautzue jaramonik egingo. Dana dakiela usta dabe, arro dagoz. Baiña zuek ekin, apal eta leun, eta azkenean entzungo dautsue, zelan ikusi alan.

Ara zer diñoen gogo-jakitunak. Semeak sei urte dauzanean gurasoak aundizat daukaz. Amabost urte daukanean, aita ain aundia ez dala uste dau. Berrogei urtekoa danean, aita txotxoloa dala esango dau, baiña zartzarora eltzen danean: Ai! Gure Aita! Arek bai eukala zurtasuna!

Arrisku bat agertzen da gure esperientziak gazteai lagundu nai dautsegunean: Euren bizitzara sartzeko tentaldia. Kontuz! Itzi ezkondu gazteai curen mundua ikusten. Ez esan iñoz: "Ni ilten nazenean zuek txakurrak jango zaitue". Ori esaten eban gure amamak, baiña il zan eta gure aita eta ama ez ebezan jan txakurrak.

Ez sartu euren bizimodura. Beti emon aolku ona apal eta leun. Eurak asarretzen ba'dira, zuek beti pazientzia artu, beti eurak baretu ta poztu.

**OLAZAR'tar MARTIN'ek**

# OLENTZARO (OTO TA POTOTO)

*Elurra tellatuan  
Sakua lepuan  
Ibilli bearko degu  
Aurtengo neguan...*

Elurra mara-mara ari da, zuritu du mendian... Sukaldean makallaua beratzen eta osaba Prisko'k ekarritako bixigua sutan erretzen... Amama (Forua'ko alaba berez) intxaur-saltza gertatzen, bere errian sekulo-sekulotan egin daben modura.

Ona nolán: Lenengo intxaur mamiak atara, zapi txuri baten gañean birrindu botella borobil bategaz; ur apur batekin sutan imiñi eta olio gordiña bota gañetik (kollara-kada batzuek) eta egurtxo bategaz eragin. Iriña naastu saltza loditzeko, makallau printza batzuek eta gozoa ugari.

Baña, Gabon-gaba onetan gauza asko daude oraindik egiteko. Oto gizarteko gizona da eta giza-arteko artu-emonak zintzo betetzen alegiñak egiten ditu beti. Eta, gañera oitura zaarrak betetzeko ba'da, arreta aundiagoagaz oraindik. Eta, Olentzero gabe, ez da benetako Euskalerririk. Oto'k beintzat, ala usten dan.

Aurtengo Gabonetan Oto zoriontsu dabil; ez dabe ba Oto berbera aukeratu Olentzero' n papera egiteko... ! Amama intxaur-saltza prestatzen laga eta badoia kalera, gau onetako euskal kutsua galdu ez dedin.

- Aizak, i, Olentzero! (Zioan Joxe errementariak gaurko gau onen buruzagiak)

- Ez dok Olentzero esaten, Onentzero, baizik. (Eten dio Urliak aldamenetik).

- Bai, ik ori zarauztarra aizelako esaten dek; baña, guk Lazkao'n Olentzero esaten diagu.

- Baiña, Andoain'en Orontzero orrelan oi dabe eta, Leiza'n, nere amamaren errian, berriz, Oranzaro. (Pototo jakintsuak).

- Beno, Olentzero, Onantzero edo dana dalako zer ori zein zan jakin bear degu.

- Kopla zaarrak onela dio: (Berriz, ere Pototo'k)

*Emen eldu gerade  
Berri on batekin  
gure enbc/jadero  
Olentzorekin.*

*Olentzero gurla  
Ezin degu ase  
Bakarrik jan dizkigu  
Amar txerri gazte  
Saieski ta solomo*

*Makila bat este  
Jesus jaio dalako  
Kontsola zaitetze.*

*Olentzero joan zaigu  
Mendira lanera  
Intentziñuarekin  
Ikatz egitera  
Aditu duenian  
Jesus jaio dala  
Laisterka etorri da  
Berri ematera.*

- Pototo, ori gauza jarria dok! Jesus-en jaiotz-a]bistari eta tripazai...! Jesus'en mezulari eta mozkorra...! Ikazkiña izatea ez zait txarto iruditzen; baña, mozkorra?

- Barkatu, Joxe; baña, berriz be, Zarauzko berri ematen ditzut: Zarautz zaarreko etxeetan, Gabon gabeen, *Olentzero mokorra imintzen dogu sutan; eta ori ez da Olentzero ardoz ale mozkorra.* Olentzero mokorra eta emborra, baizik: sutan jartzen dan trunko aundi bat. Moskorra, mokorra, emborra edo trunkoa, guztiak dozak bat...

- Orduan, euskeraz geiegi ez zekien bateren batek *moskor* orretatik ateralco ebazan beste bertso onek:

*Olentzero, begi gorri,  
Nun arrapatu dek arrai ori?  
Itsasoko arrocketan  
Bart arratzeko amaiketana...*

Edo, beste onek:

*Orra, orra gure Olentzero  
Pipa ortzien duela  
Eserita dago;  
Kapoiake ere bai-tu  
Arrautzatuakin  
Biar meriendatzeko  
Botilla ardauakin.*

Bat-batean Oto'ri adimena argitu zaio:

- Guk —dio— enbor orreri beti *Gabon-zuzie* esan diogu eta *Gabon-zuzie* gauza serioa dok.

- Bizkaia'n *Gabon-mukurra* Bedia'n eta *Gabon-subilla* Abadiño'n; Araba'n, berriz, euskera aastuta daukaten erri batsuetan, Gabon eta beste batzuetan Parrondoko esan oi diote *Olentzero-moskorra'ri* edo enborrari... (Pototo jakintsuak).

- Eta, *Olentzero-moskor* edo *enbor* ori, zertarako dok?

- Enbor aundia bear dau izan, Urte-berriraino gutxie-  
nez, eta al ba'da, urte guztirako iraun dezan. Enbor onek  
ikullua, korta, abereak eta etxeko baztar guztiak bede-  
in-katzen dauz... eta, gaitz guztietatik gorde.

- Olentzaro moskorra ez zan mozkorra eta zergaitik  
imiñi bear diazute sato-ardoa lepotik zintzilik...? (Oto  
protesta bizian)

- Arrazoi baten itxura badok: Olentzaro moskorra edo  
Gabon-zuzie badok zer-edo-zer...! Misterio beltza dok au!  
Zeñek argitu lezakeen. (Joxe'k kezka betetik).

- Aizak, Joxe, eta muturra zergaitik beztu bear diazu-  
te? (Otok, berriro).

- Olentzaro ikazkiña ba'zan...

- Ago ixilik, ik ez dakit gauza orren berri. (Pototo'k)  
Olentzaro'k muturra beltza dau tximiñitik beera jeisten  
dalako, itaia eskuetan duela.

- Itaia, zertarako?

- Otaik ebagi eta sukaldea berotzeko Gabon-zuziaren  
aldamenetan... Anboto'ko sorgiña ere agertzen oi da itai  
baten itxuran... Itai ori illargi berriaren itxura ez ba'da...

- Oiek danok gauza xebreak dozak.

- Olentzaro, be, gauza xebreak inguraturik agertzen  
da; erramua berbera be ekartzen dau.

- Zer erramua gero?

- Erramua euskeraz ereñotza dok eta Olentzaro ereño-  
zagaz egindako estalpe batean atera bear dau, gauzak  
ondo egiten ba'dira. Gañera itaia eskuan, eta al ba'litz,  
enborra sutan...

- Eta, pipa?

- Pipa, txorixo eta lukainkak, botilla-ardoa eta sakua,  
gerora erantsitako gauzak dozak... Sukaldeko tximiñitik  
beera datorrenean, itaia, bakarrik ekartzen dau eskuetan.

\*;ic

Eztabaidatik argia sortzen ornen da... Askotan txinpar-  
tak ere bai. Guztiak ez zeuden Pototo'rekin bat... Izan ere,  
ba du Olentzaro'k alako Zantzar'en alako itxuratxo  
bat... Biak jeisten dira tximiñitik beera. Biak zikin, biak  
suarekin zer ikusi dutenak: Zantzar gizarajoa sutara  
botaten dabe; olentzaro, berriz, suaren jabe da: berak argi-  
tzen eta berotzen sukaldea, enbor aundi onekin.

Baiona eta Uztaritz'en erretzen daben Zantzar'en  
mota batzuek badauz Olentzaro'k andik edo artuta... Ez  
litzake ain anigarri izango...Leikiena da. Orregaitik ez  
zioten Oto'ri pipa ortzetatik kendu; ez eta lukainka eta  
sato-ardorik ere, muturra beztu; itaia eta erramuak Poto-  
to'ren arazoa zan.

Urten dabe kalera. Aterik ate. Asieran Olentzaro anda-  
tan eramaten eben: gero, astoa ala gurdia ekani izan diote  
errezago ibiltzeko. Koplari Pototo. Berak kanta eta berak  
erantzun.

Eup! indartsu bategaz asten ziran etxe bakoitzean.  
Gero Pototo bera bakarrik:

*Emen eldu gerade*

*Berri on batekin... (eta abar)*

Ondoren taldeak erantzun:

*Orra, orra gure Olentzaro  
Pipa ortzian duela... (eta abar).*

Baña, koplak orrek bukatzean, musika be aldatu egiten  
dabe:

"Artolak dauka " bezela:

*Olentzaro buru aundia  
Entendimentuz jantzia  
Bar arratsian ustu digula  
Amar arruako zagia...*

"Andre Madalen" antzera:

*Ari naizela, ari naizela  
Nekatu zaizkit ezpañak;  
Etxe ontatik espero ditut  
Errial bi ta gaztañak.  
Emango ba'zu, emazu  
Bestela ezetz esazu,  
Ate-ondoan otzak iltzera  
Amak ez gaitu bialdu*

Bete dabe sakua gaztaña, mizpero, intxaur, txorixo,  
saieskiz eta abar... Aurtengoa be egin dogu. Ez dadilla  
eten katerik...

Gabon aparria gertu dago Oto'ren etxean. Danok mai-  
inguruan dirala, aita ogiari muturra kendu eta gordetzen  
du datorren urterarte...

## EGUBERRI-URTEBERRI

Oto kortako atean eguzki-lora bat josten ari da. Eguz-  
ki-loreari kardalora be esan oi zaio.

- Zer darabilk or? (Pototo'k).

- Eguzki lorea ikulluko atean jartzen.

- Zertarako?

- Ondo ez zekiat: nere aitona orrela egiten ebalako,  
edo

- Bai zera... I alproja xamarra aiz eta izango dok beste  
arrazoien bat.

- Tximistarria ikulluan sartu ez dedin.

- Eta, beste anazoibiderik?

- Arbereak gaxotu ez ditezen.

- Ez dakiela eguzkilorea zeñen irudia dan?

- Orrenbeste badakit: Eguzkiaren irudia.

- Mundu onetan Eguzkiak ditu indarrak. Berak bizi-  
arazten ditu baztar guztiak. Berak bakarrik ez; bere iru-  
diak ere bai. Irudia eta iruditzen dana, biak alkarri lotuta  
daude alkanen artean sortzen dan indar berezi batekin.  
Izena eta izana bezela. Ire kortako Eguzkilorea eta Eguz-  
kiak, biak, bat dozak. Eguzkiak gordetzen ditu ire ikullu-  
ko abereak eta etxea... (Pototok sermoilari).

- Gaur gabon. Gabon eguna Eguberri izan oi da beti.  
Eguberri izena zer dan? Eguberri, Argiberri da.

- Nundik asmatu dok ori?







# BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

## 5.- DAUTZUT/ZAITUT

Gramatikearen eta Bizkaiko euskaldunen artean burruka bat dabil: Gure euskaldunak gramatikearen aurkako bideak artzen eta jarraitzen dabez eta gramatikariak euren aurka dabiltz zarataka. Nork edo zeinek irabaziko dau? Bultuka au, beste alde batetik gauzea ikusita, izkuntza guztien arazoa da geiago edo gitxiago eta azkenean erriak irabazten dau, gramatikeak erriaren bideak arauetara ekarri bear dauzalako, baiña zenbat denpora egin bear dau erriak gramatikearen aurkako burruka onetan? Inork ez daki itaun oneri erantzuten.

Arazo ori argitzeko, ona emen gaurko adibidea.

Orain berrogei urte gazteak esaten eben: "Len ikusituz" edo "atzo ikusi neutzun". Gazteai beti esan dautse-u ori oker dagoala eta onelan esan bear dala: «Len ikusi zaituz" edo "atzo ikusi zindudan". Baiña ez dauskue jaramonik egin eta -azte orreik berrogei edo iruro-ei urte egin dabez eta esaldi orreik oker esaten jarraitzen dabe. Gaur bizkaitarrik geienak jokabide oker ori darabille erri-izkuntzan, naizta euskera idatzian inon be agertu ez oraindiño.

Onaino eldu -ara. Zer egin orain? Aditz-joko oker orreik onartu?

Ez dala eldu sasoi uste dot. Nik -ramatikako arauari jarraituko dautsat oraingo eta urte askotan izanao dala orrelan uste dot: "Ikusituz zure ule zuria eta zeu be ikusi zaituz" edo "atzo Bilbao'n ikusi zindudan baiña ez dautzudaz ikusi zure zapatak".

## 6.- AITA TA BIOK

Zenbakiak bide dirala, izkuntza bakoitxak bere jokoak egiten dauz eta onartu-bearrekoak dira. Esaterako Israeldarrak ugaritasuna agertzeko zazpi zenbaki erabilten dabe: Jainkoaren aurrean diran zazpi espirituak. Gaztelaraz milla erabilten da orretarako, baiña euskereak amaika erabilten dau: "Amaika bider artu dozu nire eskutik janaria!" Ona emen Eibar'en entzundako esaldia, erderaz: "Onze cosas para ver ya hemos nacido". Esaldi oneik euskeraz ondo jotzen dau belaiTia: "Amaika gauza ikusten jaiok -ara".

Asko esateko euskereak beste itz bat erabilten dan, Bizkaian gitxienez: Makiña: "Makiña bat gizon ikusi

doguz edatetxerik edatetxe!" Berba orrek ez dan ondo jotzen euskeran, baiña or dago.

Zenbakiaren arloan ona emen euskeraz baiña aurkitzen ez dan beste esaldi bat: "Joseba ta biok izan gara Errioxan". Jose ta biok iru izan bear leuke, orrelan dira erderaz, baiña ez euskeraz. Euskeraz bi dira: Joseba ta ni.

## 7.- URTEN DOT?

Aditz batzuk dagoz bizkaieran, berez igarogaitzak izan arren, igarokor lez jokutzen diranak. Ez dira asko baiña bai antxiñatik orrelan erabilten diranak. Eta tamala da. Ain da gure aditza burubide zuzenezkoa! Olako salbuespen batzuk aurkitzea, mingarri jako gramatikariari.

Olakoak diran aditz bi aitatu doguz: "Urten" eta "igon"

"Gaur etxetik urten dot goizean eta eguerdi-aurretik mendira igon dot" Ori orrelan esaten da Bizkai guztian. Eta beste era onetara izan bear leuke: "Gaur etxetik urten naz goizean eta eguerdi-aurretik mendira igon naz".

Zertara erabilliko dogu?

Nik arazoa aske itziko neuke eta era biak onartu. Dana dala, ezin neike ezkutatu neu "urten naz" edo "urten nintzan" eta "igon naz" eta "igon nintzan" erabiltearen alde nagoala barru-barruan.

## 8.- BEAR DOT/BEAR NAZ

Ez da sarritan argi agertzen zein dan obeto "joan bear naz" ala "joan bear dot". Argi agertzen da aditz igarokorra: "ogia ekarri bear dot". Bardin jazoten da "ezin naz etorri" edo "ezin dot etorri" diñogunean. Beti dago zalantza bat bata naiz beste artzeko.

Alde batetik "bear" eta "ezin" izen-lagunak izan leitekez: "Ni etorri bearra naz" edo "ni etorri naz", baiña neure ustez "bear" eta "ezin" beti erabilli bear litzakez aditz igarokor lez: "Nik egun guztietan etorri bear dot" edo "nik ezin dot etorri e-un guztietan" edo "nik ezin daiket etorri egun guztietan".

Ezin ukatu, orregaitiño be, "bear"egaz obeto dala esaldi ori, "ezin"egaz baiño.

**OLAZAR'tar MARTIN**

# BATZANGOA EDO GLOBALIZAZIOA

Itzaldi bat asten danean esaten diran berbak dira. Orregaitik zuzen dagozan ala ez jakiteko, itz egiten dauana nor dan artu bear da kontuan: Gizonezko baten itz egiten dauanean, "anai-arrebok" esango dau, baiña andrazko bat danean? "Neba-aiztok" izan bear leuke, baiña au ez da iñoz entzuten, bear ba'da orain-arte andrazkoak gitzitan berba egin dabelako erri-aurrean. Baiña beste batzutan norberaganako begirada barik egiten da berba, eta orduan "neba-arrebak" esan bear da, esaterako "guztioak gara gizakiak eta geure artean neba-arrebak". Itzaldieta "jaun andreok" be erabilten da.

Gaztelaraz beti esaten da "hermanos". Nondik dator ba, euskerearen ugaritasun au? Gure sendi-izenak geiago diralako. Erderazko "hermano esateko itz bi daukaguz: "nebea" neskearen aldetik eta "anaia" mutillaren aldetik. Eta askorengoa erabilten dogunean erderazko "hermanos" izan leiteke "nebak" neskeak ba'diño, "anaiak" mutillak ba' diño edo bietarikoak ba'dagoz taldean, mutillak "anai-arrebak" esango dau eta neskeak "aizta-nebak" (esan dogu au ez dala entzuten).

Dana erreztuteko bide bat dago: Erderazko "hermanos" erabilten dan lekuan euskeraz "senideok" erabili.

Sarrera: Gizon arroaren asmakizun-ekintza Ludi onetako edesti guztian, beti izan da jainko-lez gizartean agertzea. Nai berak edo euren ustez geien dakielako, eta bai indar geiagorekin tresnatu egiten diralako, arrotasunezko asmakizunak euren gogo-almenakaz beteteko.

Baiña bizi-gai onetan, danak jaioten gara Nor-beren ardurazko babesgoan, eta ardura orreik bakarrik, muga-tzen dabez iñoren babeskeri asmo oiek.

Orregaitik gaur eta beti ainbeste zezio, ardurazko ekintzak beren lekura eroateko.

Eta ori, beti gertatu dana Mundu onetan da. Bereziduna sekula ez da joan erasoan, bai alderantziz beren sinis-menari eta lurrari eutsi arrotz-menperatzaillaren zalekeriari; eta orregaz Ludi onen ikaragarrizko mapa bat egin leike ikusteko, nola Europa'ko sasi-jainko erregeak batez-be, eurak gura eben guztia menperatzaill arloan egin eben Erriak euren aginpean oinkatuta eukiteko, gero milla zatitan apurtu eta bertan itzita, gaur ezeren lotsa-barik esateko: jakintzaren arloan atzeratuta irugarren maillan geratu dirala. Ez dira geratuko ba...?, euren esku-artekoetari ainbeste lapurtza egin ez gero eta sinis-menean ain naazpilduta itzi ez gero? Orrek kalteok ez dira konpontzen egun batean, ez gizaldi askotan ere, euren Nortasunezko berezitasunak apurtzen diralako eta menperatzaill eritxia an geratzen dalako, konponketako bideak oso saillak biurtuz.

Begitu bestela gaur oraindiño Ipar-Ameriketako indiarak euren erreserbetan edo gordetze lekuetan

menperatuta. Ego-Ameriketan Espainol 'ak eta portuges 'ak egin ebezan triskantzak berezitasunezko erri ezberdiñetan, esku-arteko balio guztiekin eta sikolojikoki. Indian, Afrikan, Asian...; danez gain, argi-argi ikusten dana dala, kolonizatutako erri guztiei: asko, larregi eta larritasun aundiakaz esango neuke nik, kosta egiten jakiela Nortasuna berriz berrezkuratzea, ain giza-bide (civilización) aundiak ziranai, Indioak, Moruak, Inkak eta abar asko, curen bizitzarako jakiturizko oitura guztia zatitu eta nazpildu ebelako.

Euskalerra'ri ere bardin gertatzen jako, nai-ta gu eten bako borrokan ibili orain ere daukagun Nortasunaren izaerak bizirik iraun dagian, bera desagertu ez-gero Euskalerraren eriotzea dalako.

Euskaltasuna Paris'en ingurutik Ebroraiño bakarrik? Gaztelarrak be Euskaldunak ziran, bestela zer ziran Beroiak?, Auñamendi guztia, bestela zer izan ziran Ilerdatarrak? (Lerida), Espaina, osoan dagozan Euskal ize-nak? Euskerazaintzan ba-dago agiri bat, Bizente Latiegi eta Latxagak aurkitutakoa, nola Aragoi'en (izena berak esaten dau zer dan) 1608'an San Martiñeko azokan debekatzen zan Euskeraz egitea. Kukula'ko Done-miliane ere or dago, Euskera'ren abia izan zana. Burgos'en Iparraldea, Medina de Pomar, Villarcayo, Valle de Mena, Valpuesta, Valdegobia bakarrik?

Dana dala, leenengo erromatarrak, Godo'ak eta maomatarrak, gero gure Napar erregeak egin eben Euskal Lurraldearen banakuntzaz Euskal Nortasuna galdu ebenetik eta askenean erregeak Eleizagaz batera ekarri eben Latin menperatzaillagaitik, Lurralde oiek naastuta geratu ziran, gaur gure Erria Adur'etik Ebroraiño bakarrik geratuta, gaiñera erdibituta Espaina eta Frantzez'en joko zikin baten barruan, gu Espainol'ak eta Frantzezak gariela esanez.

Argi ikusten da, Batzango edo Globalizazio bat gure dabela Berezitasuna alboratuta. Zertarako? Len ostu eta apurtu dabena ez dabe ordaindu eremutako lurraldeak bertan itzi ta alde eginda ibili diren toki guztietatik, orretarako? Mundu onen irudia euren eskuetan, iretargiaren baiño irudi zuriagoagaz itziko leukie Jainkoa'ren Lege'ak itziko ba-leuskie, Mundu onetan Gizaki'ren berrizkuntza guztia: "Nor-beren ardurazko babesgoan jaioten garalako". Orregaitik betiko zezioa eta borroka: edo... "Jaingoa'ren Lege'pean ardura guztiaz bizi", edo "gizon-menperatzaillaren agindu-pean". Nik ez daukat iñungo zalantzarik "Jainkoa dalako nire buruzagia eta elburua".

Asmakizun orren eritziko gizon/emakume eta taldeak asko dira gaur egunean, eta curen eskuetan daukiez gaurko jaurkintzak, espatak, gure buru gaiñetan

ezarrita. Baiña Mundu onen gizon/emakume guztien ardurazko ulermenean argi geratu zan, Mundu'ko II' garren guda nagusien ostetik: giza ar/emearen eta Errien eskubideakaz arduratu bear gintzala leenengo, Mundu onetako lege-ekintzaren lanean; bakea beinbategarri daiten Jainkoa'ren lege babesean.

Euren ekintza oso gogorra ta indartsua da, aukera asko eukinda erak aldatzeko, gizartean babesaren egarriak sortu daitezcan, eurak sasi-jainkoaren buru izateko, eta danon gainean ezarrita: diruak, bereinkapenak, zigorrak eta parkamenak banatzeko.

Gaurko lotsagabeko era: xautzailletasunezko-gizartea da; Nortasunaren ardurak menperatu egiten dauazana. Eta berezitasunezko gizon/emakumearen babesgo ardurak baztartzuz, euren gai-babesaren egarriak izartzen dabezcanak, izugarritzko sorotasunaz, danak!! ezereen edo utsaren billa bideratuta.

Jainkoa'ren bidea berrezkuratu bear dogu nai-ta naiez, gure bizitzak zuzenezko zentzuakaz beteteko, eta gogoak beta daiguzan bere legean, ez!! bakarrik bakez bizitzeko, bai iltzeko ere bere zorionean.

Orregaitik ez dogu ontzat artu bear Batzango au, oiñarteko menpekotasuna aurrera eroateko, zapalkuntzaren Era barri bat dalako.

Eta, arrazoibide ori eskainiko dautsuet, Ludi onen gizarteko edestiari laburpen-bat eginda.

**Edestia:**

– Europa, Afrika eta Asia'ren erdiak Erromatarren menperatuta euki ebezan, eriotzeko, bai etsaimendeko ta joputasunezko indarrakaz zapaldu edo oinkatuta.

– Egoera negargarri ortatik urteteko, erlijiozko bidebarri baten bidez erabagia artu zan: Erri-gizon/emakume'en arteko lotsagizuna konpontzeko eta ainbesteko mokorkeri ta aberetasuna geratzeko.

Su aundi bat lez, laster zabaldu zan, barri-on ori ekarten ebalako; eta indar aundia artu eban, on-artua izan zalako. Orduan ere aituten eben: Eskubideak "batzuenak bakarrik ez zirela izan bear, arrazoizko bidetik gura ba eben jokatu.

Geroago, Erromatarren menperatasuna amaitu zanean, eta erlijio barri orren barnean ainbeste eritxi ezberdin egoteagaitik, Konstantino aundiak 325'an leenengo Eleiz-Batzar Naguzirako deitu eban, eta andik aurrera, berak Sortaldeko Kaisergo agintea artuz, Eleiza Katolikuari eskubide asko emon eutsozan Mendebaleko agintean, Arriano'ak alboratuz edo gaitz-etsituta.

– V'garren gizaldian, Godo'ak etorri ziran, eta auek ekarri eben menperasunezko indarra berriz Europako

Mendebal ontara. Ortik aurrera berezitasuna menperatzeko beti egon dira zirikatzen.

Leobijildo'k, beren seme Rekaredo'ri esan eutson, Espainia'ren batasuna bere menpean gura ba-eban euki, Katolikotasuna besarkatu bear ebala.

587'an Arrianismoa utzi eta 589'an Espainia'ren leenengo errege katolikoagaz, berak deituta, III' garren Toledo'ko Eleiz-Batzar Nagusia bete izan zan, eta andik aurrera gaur arte dago Europa eta Mundu guztian berezitasunaren menperatasuna; Eleiza, leenengo eura-kaz eta gero eurak menperatuta, beren Nortasunetik Kaiser-jaun eta erregetzari lar emon eutsielako, indarririk gabe geratu da. Batetik, menperatasun gogoetan indartu, eta bestetik, Moral, Oituran edo etikan utzitu.

Ez da olan geratzen, kaisar-jaunak eta erregeak indarrez beteta, XVIII'garren gizaldian, berezitasunari aiztokada edo sastakada emon gure dautsoelako; eta ekitaldi ori 1789'an asita Munduko guda nagusiaz 1945'an amaitzen da. Gauzak ararte egon ziran lekuan agintearloan itzi ziran, baiña erabagi aundi bat artu zan: andik aurrera, guda geiagorik ez zala egongo, eta Demokrasiaren arrazoi indarragaz konpondu bear zirala, Erri-gizon/emakume bereziak eta berezitasun guztiak daukazan arazoak. Baiña oraindiño, nai-ta kaisar-jaun eta erregetza parlamentariozko mallara jetsi, diruak daukan indarra, curen eta euren eritxiko eskuetan dago, berezitasun guztia sasi-jainko xautzailletasunera bideratu naian. Ez da oraindiño gizartean lenagoko aitor-seearen menpekotasuna (sociedad valvasora) desagertu ez!!; ori dalako orain ere, nai-ta beste izen bategaz agertu, gaurko "Globalizazioa"; nagusitasunezko arrouzkeri oiek, ez diralako ezertxo be aldatu.

**Gaurko Jarrera:**

Gerla edo guda denborak gogorrak dira, eta orain arte gure Europa onetan ez dabe balio izan, menperatsunak sendotzeko baiño.

Baiña, geiago ezin dan leku batera eldu dira: alde batetik, gudarekin aurrera ekin ez-gero, Ludi onen gizia eriotzeko galbidean kokatuta geratzen dalako. Beste aldetik, ulermeneko jakintza gero ta geiago dalako, menperatzaillaren gezurrak, gero ta garbiago, Mundu onek daukan Lega bereziaren aurka geratzen diralako.

Gaur, gauzak txarto egiten ba-dira, bitzaren antzera, gainean argi-argi geratzen dira; eta menperatzaill egi-kera ez da sekula ere ona izan gure Mundu ta Errian oiñarteko edestian. Gizakiren eta Erri-bereziaren lotsagizunezko ardurak ezerezean geratzen dira, beste batzuen eskuetan geratzen diralako, eta denbora orrek beti!

---

**BIZKATTARRAI BIZKAIERAZ**

---

## ARAZOAK

joputasun eta etsaimendekoak dira zalantzarik gabe.

Orregaitik, menperatzailtasunaren ostean, gezurra ain agirian geratu eta iñoren uler-eziñera eldu diralako, orma baten aurka jota-lez agertzen da. Denbora auek dira guk gozatu bear doguzanak, askatasun maillan arlo aundiagoak lortzeko eta poz aundiagoaz danon lanekin, LEGEAK berezitasunaren alde kokatzeko. Jainkoak ipini dauzkuzan lege'en aldera doa au. Au da-ba berezitasunaren aukera.

Baiña, curen ekintza aurrera gura dabe croan, eta orretarako beste izen bategaz gura gaitue iruzurtu: "Batzangoa edo globalizazioa rekin".

Ikertu daigun-ba lenengo, ipini daben Batzango ori gure baimenik gabe, zergaitik ezin dan on-artu. Eta orretarako bost arrazoi ipiniko doguz.

- a) Agertu jakun Batzangoa edo globalizazioa zer dan.
- b) Zer izan bear leuke Batzangoa edo globalizazioak.
- c) Nortzuk izan bear dira Batzangoa'ren arduradunak.
- e) Ludi onen gizadiak daukan Nortasuna.
- f) Euskalerrriaren Nortasun-bidetik, zer esan gura dau Batzangoa edo globalizazioak.

Asken baten,

- g) Ondorioagaz ziurtatzeko.

### a) AGERTU JAKUN BATZANGOA EDO GLOBALIZAZIOA, ZER DA:

Edestian ikusi dogun lez, erdi-mende guztian gaurko denborak kontuan artuta, gizakiren ekintzarako asieratik ipini ziran leenengo gogamen onak, beren oituraren gainean Kristau morala, bai beste erlijioenak ere ipinita; Gaiak bear dabezan aldakuntzatan, Etika'kin edo Morala gaz orekan egon daitezcan, Egaz egin dabela; Ludi onen gizadian ezberdintasun aundiak sortuz, gaur agertzen garan lez.

Ez da arritzekoa, kontuan eukiten ba-doguz: Erdiaro orren denbora guztian, ia gaur arte, jakintzaren mailla aundira, gutxi baiño ez zirala eltzen. Eta gure bizitzan, arrotasunerako tentaldi edo zirikadak ain aundiak diran lez, gaur Munduan dagozan erakunde guztiak joko kanpo agertzea. Alde batetik erlijioak: gizadiaren jakintasuna, etorkizuneko oinkada bakoitzean goratzen doiena, gogoetan euki barik, eta euren ziñezkintzak dabiezalako, utzik geratu dira. Beste aldetik, Lateerizko jaurkintzak: Erri-berezien Nortasunezko Berezitasunak kontuan euki gabe, aurrera gura dabe joan, azkeneko 212 urtetik onantza (162 urte gure errian) egin daben antzera. Eta curen ekintza, ezeren lotsabarik aurrera eroaten dabelako, or!! Mundu guztian agertzen diran borroka latzak, Gizadiaren eta Erri-Berezien Nortasunezko ardurak ez diralako kontuan artzen. "Arduradunak ba gara!!, arduraren zeozer egiteko jaio gara, ez?"

### Orduan..., agertu jakun gaurko batzangoa edo globalizazioa zer da?

Izugarrizko larderi (imposición) bat.

Ludi onen asieratik, Erri-gizon/emakume en etorkizunean eguneroko oinkada'kin, aurrera doia geratu barik, eta geratu ezin leikena Jainkoa ren agindu az batera.

Bide ortatik, Mundu onen ezaguntza gero ta aundiagoa dalako, goi-maillako ikasketak eta berri-ekarleai esker. Bai txikerragoa ere, gizon/emakumeen arrematetako argibideak ondoratuz, aalmenak ugaritu eta aberastu egiten diralako.

Erri bakoitzaren jakintzak, Erri guztien artean erakutsiaz, obeto alkar-ulertzen asi garelako: Erri-ezberdiñeko jendarteetan, arreman sendoagoak lortzen ditugu; eta diru arloan, laguntza askoz geiagorekin, bearrezko diran egarriak asetu eta lurak eremutik berrezkuratu, iñorentzat sabel-zorriko goserik ez daiten egon, lortzen dira.

Guzti-au, Mundu onek daukazan Erri-ezberdiñeko gizon/emakumearen berezko berezitasuna da, danok jaioten garan arduraren eskubideak diralako.

Eta... guzti ori beartuta izan bear leuke?: EZ!! Iñor ez dalako NOR. beste baten ardurazko eskubideak eskuratzeko. Alderantsiz BAI!!, gure bearrezko antolamendu ekintzagaz aginduta, danon gainean askatasunezko elburu-lez ipinten doguzan erakundeak, izan bear diralako arduradun bakarrak, danon artean on artuta, Erri guztiak bakean bizi gaitezcan.

Orduan... Batzango au, zer edo zergaitik da goian esaten doten lez "Izugarrizko larderi bat?"

XVIII garren gizalditik onantza, kaisar-errege eta eritzi bardiñeko inguruan dabizenak, Mundu onen gizarte edo jendarte, mailladuna gura dabelako izan gaitezcan, espataren indarragaz, Laterri Menperatzail leak beartuta ipini dabez, Erri-Berezien gainetik.

Eta menperatasun orrek emoten dauan indarragaz, Erri-bat zuzentzeko bear-bearrezkoak diran legearen itur buruak euren eskuetan dagoz, Erri orren baimenik gabe. Eta berezitasun-ori lapurtzen dauana, euren menperatzaille dan joko aurrerantza eroatekotan da, diruaren eta jaurkintzaren laguntzaz, aukera ezinbestekoa dalako. Orregaitik, diruaren iturria da leenengo lotzen dabena gudaloztearen keiñadurakin, curen eritzien alde egon daiten, Izadi onen berezitasuna zapalduta.

Orain arte olan izan da, baiña gaurko DEMokrazia, 1945'an ONU'ren bitartez erabagi zana eta 1966'an abendua'ren 16'an berriz onartu egin zanaren bitartez, Europako Laterri menperatzaillearen guzurra, ezin dabe aurrerantza croan, Moral edo Etika arloan berregarriko dalako, bitze lez, argi-argi, danak ikusi leiken lekuan, gainean geratzen dalako.

Orregaitik, curen eritzia aurrera eroateko Europa eta Ameriketako Laterriak alkartu dira, Mundu onen men-

debaleko erri-jakintza aundienak, ta goi-maillako zibilizazioa esaten jakonari, Erri-berezien artean, ekintza demokratiko on-bat lortu orduko. Eta orregaitik ibili dira "presaka" curen eskuetan dagozan diruaren iturriak, berezitasunezko diranai argibidearen aalmenak mugatzeko. "Ori da!! Gaurko batzangoa edo Globalizazioa".

Baiña barre egitekoa dana, Munduko II'garren gerla irabazteko. geiago egin ebana eta gejago alegindu zana 1945'an eta 1966'an ONU'ren babesean, berezitasunaren eskubideak zaintzeko, gaur bera izan dajtela eta beren indarraren babesean, menperatzailearen aterpea.

A ta guzti ere, bardin-bardin da, atzoko guzurra txikerragoa eta Laterrietan bananduta egon arren, gaur Munduaren-beste aundiagoa da, eta ostondu eziñekoa, bai barregarritzkoa. Nik uste dot, denbora askorako ez dala izango, Abertzaleak egizko ekintza bat egiten badogu, erpea gogor-gogorra euki arren, eta pekatua alangoa dalako, lotsa-aundiaz izango dira.

"anai-arrebok, au-da berezitasunaren aukera ederrena, askatasuna lortzeko".

b) Zer izan bear leuke batzango edo globalizazioak:

"Ei7i-gizon/emakume ezberdin arteko antolamendu edo erabagi on-bat. Aurrera begituta, Ludi onen gizakiak adi egon daitezcan, bear dabezan oinkada-onak emoteko, bear diran denboratan", zalantzarik gabe.

Baiña zer gertatzen da..., Mundu onen gizartean agertu daiten ainbeste zezio edo matraka?: Iñork!! edo "Nortasunezko itzak bere esangura-mugatuan batzen dauan adiera lez...", ez dagoala beren lekuan kokatuta. Orregaitik ainbeste zurruburru (desuni6n), eziñ-egon (desasosiego) eta etsimendu (desesperaci6n).

Argitu daigun ba, begituaz, nola dagozan Mundu onen Lege-Erakundeak, beren jendartea bakez, bai bizitza bera zergaitik dan, eta gure ulermenean sortzen dituan egarriak asetuz, Jainkoa 'ri be-ira lan egin dagian.

Orretarako begituko doguz:

- Gizaren bearrezko antolamenduak.
- Erriaren edo Laterriaren Jaurkintzak.
- Erlijoak.
- Gizaren artean ordezeko dirua.

Emen egiten doten zeazketa guztia edestiari buruz, Euskalerrriarena Europa barruan izango da oiñarri-lez, beste erri guztiena ere bardiña dalako. Menperatzaileak, danontzat gura dauan bizidura curen jator-zaletasunaz, jendarteko bizitza mailladuna izan dajtten, oiñarriren gabekeri bakararra daukielako, Izadi onek daukan LEGEA'ren aurka.

a) gizakiren bearrezko antolamenduak:

Aberetasunak ere, beren antolamendua dauka, gogorkerian bear bada, abere mota bakoitzeko izatasuna geroko bizian (supervivencia) iraun dagian landara-

ren antzera, Jainkoa'ren LEGEA dalako gure babes-biziarentzat.

Baiña gu, aberen gorputza eukinez gain, beste gauza bat gara: arrazoiak emoten dauskun Nortasunezko ARIMAK gara, guztiok!, ardura bardiñekin jaioten garanak, Jainkoak emondako Legeen aurrean.

Ortik aurrera asten dira danon arazo guztiak, gure ekintzak BERE Legearen adostasunean egon bear diralako; bestela..., gaurko-lez, aberetasun sutsuan agertzen garalako.

Arazo erreik gutxi ba-dira, bizitz-ibilkeran taldetu egin giñan, orduko ulermenean, nor-beren aalmenak geiago izango zirelakoan. Etorkezinerako kontuan euki barik, arrazoi erreik, nolako arazoak ekarriko ebazan aurrerantzean. Jakin ez, eta orduan ere ziur nago, goian esan doten arrazoi bakarra ez zala izango.

Dana dala, talde oien kidetasuna adostasunean, eta curen arteko bear-bearrezko antolamendutik, sendi aundiak egin zirala, Nortasun arloa ugarituz: gizon/emakumeagaz asita ezkontzatik oiñarritzko sendia agertzen dana, Auzoarena, Lurraldearena eta guztion ABERRI-BEREZIAK sortzen diranean.

Banandu ziran talde guztien Nortasunezko zertzeladak, bardin-antzekoak dira danetan, nai-ta azalaren margoak ezberdiñak edo nabartasunezkoak izan, baiña oso ezberdiñak bakoitzaren zentzuzko ulermenean bizitzaren ekintzarako, artzen dabezan zertzeladak berezitasunezkoak diralako.

Erriaren Nortasunezko zertzelada berezi oneik, beren seme/alaben ordezkartzako bidetiak lortzen dira, gizon/emakume eta erriari izaera bakarra emoten dautsoenak, curen arteko egin-bearrak jakisiz eta oitura-tuaz, Nortasun berezi bat emoten dautsielako.

Nor da!! Noren eritziekin edo baimenarekin da..., ezberdintasun guzti erreikin, danak batera dirala, zorro baten barruan sartu gura gaituna? Olan balitz..., milla zatitan urten dagian? Ez dago Mundu-ontan indarrik, ori menperatasunaren bidez egin leikenik, berezitasun guztia alkartzan bada. Zorotasun aundia bai alderantziz. Eta ori da azken baten, gaur datorren "Batzangoa edo globalizazioa".

b) Erriaren edo laterriaren jaurkintzak:

Euskalerrriak, millaka urtetik onantza daukaz Erri-Batzarrak elburu eder bategaz Jainkoa eta lege zarra". Gaur lege erreik biztu-gura doguz, demokrazi osokoak diralako Jainkoa elburu izanda. Lege zarraren bitartez, Erriak ainbeste ikasita bizitzan zaarra dalako, eredu-lez Euskalerrri onek ikasi dagian, gure izaera gaur bizirik egoteko, indar guztia curen-gandik datorrela, beti Askatasunaren amets-bizian bizitzari oratuta. Ortaz ez dago zalantzarik Europa ta Munduaren izar aundia dala. Arro egoteko ba-da ere.

Baiña baleiteke, gaur Nor-Bera izatea iñoren babes-barik, Mundu onetan pekatu aundia edo gaizpidekoa izatea. Benetako arduradunakizanda, balio gutxiko edo

## ARAZOAK

gizon/emakume babesekoak diranai (menperatzaille eritzikoak diranak), berez beti zirikatu egiten dautsielako, craso edo albora bultz egiten dautsencn antzera geratzen dira, curen arduratan neikoa ez diralako. Gizon/emakumeen berezitasuna galdu dabelako edo gal-bidean dagozelako, curen gogoetan ez dabe ontzat artzen, eta gaur gizartean egoera-larri ortan geiago diralako, bai gizarte erakundeetan, tan tokietan eta abar..., or! ! jkaragarrizko arazoa eta lana Abertzaleentzat. Eleizak badauka bai! or zer ikusi, gero ikusiko dan lez.

Gizon/emakume maillan, orren izaerara ez da berez eltzen, gizon/emakume biziaren ez jakintasun aundira eldu garelako. Edozejn gizartean, Nortasun-bako bizikikildu baten kokatzea edo ezartzeak, beti babes-billa, ez dauka iñungo zentzurik. Okertasun ori lortzeko, eraso-aldi aundi bat eta denboran luzca egon dalako baizik.

Gure Errian argi-argi ikusten dana da! Askatasunaren bidean erdizka gabiltzalako, erbestetik arrotz asko etorri diranean, nai-ta apur-apurka curej Nortasunezko bidea irakatsiz, bagoaz askatasunaren bidea zabaltzen; baiña uste dot alegiñeko maillan, goragoko mailla baten estutu bear doguzela alegin oiek.

Aita Santik esaten eban: Euskalerrriak arerio asko daukazela; Olazar'tar Martin'ek: denbora luzekoa dala craso-aldia; eta Latxaga'k (Jose M. <sup>a</sup> San Sebastian): buru gogorrekoak dirala. Baiña ori berori egia izan da, Euskalerrriak Nortasunezko arduradunak asko daukazelako, Mundu onetan zeregin aundia dauka, jakinda gaiñera, atzetik, beste erri berezi asko itzaritzen asi dirala.

Arazo-aldi ori, antziñetik datorrena da, gure kaisar-erregetzak Euskal-Berezitasuna galdu ebenetik onantza; erri guztitik bardin sortuta. Andik 1789'ra zirikitatsuna bakarrik izan zan, berezitasunak bere lekua beti berrezkuratuta; baiña, menperatzaille zaleak, curen alde indaira eta dirua euki ebezan lez..., espataren indarragaz, gaurko jaurkintzak Laterri-lez daukaguz, erritarren baimenik gabe. European, gaur dagozan Laterriak, BAT! bera esanda-be, legezkoak ez dira.

### d) Erlijioak:

Giza seme/alabak Mundu onetan agertu gintzanetik dagoz, beldurrak eraginda. Orduko denboretan ainbeste su, estanda eta lur-ikaren bitartez; konturatu ziran, Mundu onen gaiñetik zeozer edo jainko'ren bat egoala, eta "Ortzi" izendatu eben Euskaldunak.

Kristo aurretik denbora askoz geiagoan, konturatu ziran, gizakiaren ekintzak bir-lotu edo berriz lotu egin bear zirala zentzu baten egon daitezcan; baiña alegin aundiena, Kristautasuna sortu zanetik izan zan. Kristauak banatzen joan ziran, Konstantinok batu ebazanak 325'an Europa'ren Mendebaleko kaisar-menperatasunean, eurak buru izanda.

Afrika eta Sortalde erdikoakaz, oso ezberdiñak ziralako, curengandilc urruntzen joan ziran, eta 622'an Maoma'k Islam erlijioa sortu eban.

Erlijio danak, nai-ta gogorapen on-batetik sortuak izan, ezberdiñtasuna gogortzeko, danak!, menperatasun zuri-atz (estigma) zikiñakin jaio ziran. A-ta guzti ere, ez da arritzekoa menperatasunezko zauri-atz orrekin erlijiozko legeak betetea, etsaimendeko denborak ziralako. Baiña arritzekoa dala esanez, ikaragarriko borroken bitartez, gaur gagozan denboran bimilla urte geroago, ulermeneko aldiak aundiagoak diranak eta orregaitik argitsuagoak ere, askatasuna JAINKOA'ri begira askoz erreago bideratu leikena, menperatzailleko zuri-atz eta buru-gogortasun bardiñekin agertzea. Geia gorckin ez bada.

Orrek esan gura dauana: menperatzail gogo-oiek, babesen egarriak ugaritu egin eta gaur egun ere egiten dabezanak, erlijio guztietan ikutu barik dagozela. Beste aldetik, danak lotuta eukiteko dogma'ren arauz, arrokerian irakatsi eta abar en denborak, gaurko denboratik urrun dagozela, bide oso-osoala galduta.

Orregaitik, Nizea'ko erabagiak ez dira aldatu eta Toledo'koak ere ez, Eleiza kaisar-erregetzaz batera datorrelako, eta orregaitik eleizak ez dauka indarririk curen aurka Nortasunezko bidetik; adibidez: "Berezitasunak, eskubide osokoak dirala esateko; gaurko Klonaziozko batzangoa edo globalizazioari" lagunduz.

Eleizaren Nortasun-gabeko izatasun orrek, beste erlijioakaz batera, balekite eurak izatea errudunik andienak, irugarren gerla negargarri-ori sortu daiten.

Erlijioak danen arteko baimenekin jaio ziran, gure gaiñetik Jainko bat dagoala esateko, eta izadi onen giza-ekintzak BERE LEGE barruan eraginda egon bear diralako. Bestela ikaragarriko naazketetan jaus= ten garela ziurtatzeko, bai-ta oituran berriz-lortzeko berezitasunezko legeak agintzen dauan lez. Sekula ez! gizonen arro-uzkerirako.

Gaurko zalantza or dago. Izango dira, naiz-ta oituraz gain, Morala, Etika, edo Ekandura bideratzeko? Ez dago onartzea, gerokoak konponduko dabela, guk ostera ere Mundu onetan berriz agertzerakoan, ori berori sekula ez dogulako jakingo, eta gure gaurko ardurak diralako.

Erlijioak egin bear dauana, jaiozan betiko arazoaren ardurarekin Jainkoaren legean egon daitezcan zaindu, eta Mundu onetan erperatuta dagozan BEREN LEGEAZ BEREZITASUN guztjagaitik, ardurazko lotsagizun aundiekin "Esan" Lege osokoak dirala ekintza guztietarako; leenengo asmakuntzatik orretarako jaio ziralako, eta LEGE ori ez dalako aldatu, JAINKOAREN LEGEAK ez diran-lez aldatu.

e) GIZAKIEN ARTEAN "ORDEZKO DIRUA":

Gizon/Emakume guztiak, ordezkariaren arduraz jaioten gara, eta ori da eriotzararte lotsagizun aundiaz eroan bear dogun kurutze aundia.

Orregaitik sortu gendun gure artean dirua, ordezkariaren erreztasunerako.

Baiña danon artean dabillen-lez, gure ekintza-txar edo on-egitea badaroie beragaz, diruaren izaeraz-gain, bere ibilkeran gure txarto edo ondo egitea erakusten daualako; leku batzuetan itoteko-lez dabizelako diru orren ugaritasunaz, eta beste leku batzuetan itoten, arnasea ezin dabelako artu, diruaren murriztasunaz.

Ba-dago esaera bat, ondo baiño obeto erakusten dauana, Errietan eta Munduan nola erabili bear dan dirua, leku batzuetan ez daiten lar pillatu eta beste batzuetan ain gitxi egon ez daiten, jendartean ainbeste zoritxar ez daiten sortu: "Gure Errian eta Munduan diruaren ibilkera, gure gorputzetan odola ibiltzen dan antzera izan bear leuke". Gorputz ezberdin bi diralako bai!, baiña lege bardiñekin ibili bear diralako. Errietan eta Munduan, gorputzaren antzeko arazo bardiñak sortzen diralako JAINKOAren LEGE'en bitartetik, odola aske eta ostopo barik ez bada ibiltzen.

Ez da makala azalpen ori, baiña nik esango neuke "DIRIJA": "Gizon/Emakume en arteko ordezkariaren Morala n, Etika n edo Ekandua ren, DIRDIRA" dala. Gaur ain txarto dabillena NORBERKERIAREN bitartez.

Diruak ez dauka nortasunik, ordezkariaren adierazpena dalako; eta esaera orrek esan gura dauana: gure jendarteko Morala nola dagoan gaurko egunean, beren atzetik ainbesteko ariñiketarekin ibiltzeko. Eta ori, Munduko Laterriak ondo baiño obeto dakiena da, eurak goian egonda eta diruaren iturriak eskuetan daukezala, xautzailetasunera bideratzen gaituelako gaurko GLOBALIZAZIOAREKIN.

d) NORTZUK IZAN BEAR DIRA "BATZANGO EDO GLOBALIZAZIOAREN" ARDURADUNAK?

Len b) arloan, "ZER IZAN BEAR LEUKEN GLOBALIZAZIOAK", esan dogun lez: Erri-Gizon/Emakume ezberdin arteko antolamendu edo erabagi on-bat. Aurrera begituta, Ludi onen Gizon/emakumeak adi egon daitezcan, bear dabezan oinkada onak emoteko, bear diran denboratan, Nortasun berezidunak zalantzarik gabe. Askatasun guztiaz eta beartasunezko ekintza barik, bearraldiko gogotasun orren erabagiak bete egin bear leukielako. Aldebatetik: danon egarriak asetzeko, erreztasun aundiagoak agertzen diralako; Nortasunak, Nortasunaren ardurak zaintzen dabezela, eta berezitasun izaerak, ago zabalean eskatzen daualako. Bai jaiotasunaren lotsagizunezko arduratan, aundiena dalako. Beste aldetik: berezitasunaren Nortasunak ez ba-dira, NORTZUK! ! zainduko dabez euren ardurak? Bereztasun gabekoak? JAINKOA'ren

LEGEZ kanpo dabizenak euren aberriak sortzen, berezkoak menperatuta? Oiek arduratuko dira... len egin eben lapurketak KOLONIZAZIOA'rekin... Mundu onek daukazan Eiri-berezi guztien esku-arte-koak lapurtu, bertan itzi, eta ostera ere euren lurra berrezkuratu daiezan, bizitzaren ardurak ondo beteaz eta JAINKOA emon dauskuzan aalmenak bizitzeko berrezkuratu daiezan? Nik sarritan esan dot: "-ALPERRAK ASKEAREN GAIÑEAN DAGOZELA", eta orreik dira asken baten, sasi-jainko bideak zabalitzen dabizenak "POR LA GRACIA DE DIOS".

Oien eritzikoak, bizi au aurrerantza beti beartuta eroango dabe, bereztasunaren arduratik kanpo dabizelako, "batzango edo Globalizazio auk espataren arrazoiak gure buru gaiñean ipinita".

Ez dago zalantzarik, Bereztasunaren ardurak, Bereztasunak bete egin bear dituala, JAINKOA'ren LEGE-bidea berrezkuratzea gura ba-dogu.

e) Ludi onen gizaldiak daukan nortasuna:

Mundu onen jaiotasun guztia berezia da, JAINKOA'ren agindua dalako eta Izadi onetan BERE LEGEA erperatuta ipini daualako.

Zergaitik? guretzat izkutuzko edo mixteriozko gauza beti izango dana da! Mundu onetan beintzat. Baiña or!, daukagu BEREN LEGEA danontzat bardiña dana, eta badakigu beragandik kanpo, dan guztia ez-bearra dala, gaur sortzen jakun lez.

Danok jaioten gana ardura eta beldur bardiñekin, bai itxaropen bardiñekin ere. Baiña banandu gintzazan, eta oiñarri bardiñak eukinda, Erri baktotzean euren sendiak asi zituen JAINKOA ren lotsagizunean, gauza baktotzari bere izena emonda, beren era bereziekin izkuntz berezi bat lortuta; ulermenean aalmenak ugarituaz bake aundiagorekin Mundu onen ardurak beteteko, eta asken baten JAINKOA ren gana garbi joateko.

Eta au da oiñarrizko asmo-azterpen edo egitamusaioa bereztasun guztiaz agertu jakuna. Orduan... NOR da NOR Mundu onetan, beren jainko bakarraren izenean, curen ardura bereziak, sinismen ta guzti zapaltzeko?

Orrek esan gura dauana, menperatzailtasunezko BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA rekin, ez dirala arazoak konpontzen, alderantziz, neurrian aundiagotu baiño ez, eta baleiteke ortaraino eldu bearra dagoela ulertzen asteko; artean, JAINKOAren LEGE'ari uko egin, gure lotsagizunari ezetza emonda, diñoguzan ardurak bete egiten gabizelako. Nola...?.

f) EUSKALERRIAREN NORTASUN BIDETIK, ZER ESAN GURA DAU BATZANGOAK, EDO GLOBALIZAZIOAK?:

Euskalerria'ren bizitza oso luzca izan bear da, beren izkuntza ainbesteko obekuntzaren maillara eltzeko.



## ARAZOAK

Erri zabala eta aundia ere izan bear izan dau, ainbeste arazo aldetik, orain ere Euskal-lur ontan bizirik agertzeko.

Sekula erasoan ez da joan, eta orregaitik denboraz, bestien ainbesteko eraso aldetik, murriztuta, ain lur txikerrean geratu gara. Baiña.... Mundu zabalean beti !, on-artuak izan gara, berbearen sinismen aundikoak Euskal-gizon/emakumeak garalako.

JAINKO zale, ardura guztiaz gara fede aundikoak, eta SABINO'k esaten eban lez: BIOTZ GARBIKO GIZON/EMAKUMEAK.

Nundik atara leike on-(Yuzti orren zentzua ?): Nire ustez Euskara ber-beran dago on-guzti ori, berak batzen ditulako leenengo denboretatik gure berezitasunaren izaerak gaur arte, eta aurrera begituta Euskal izaerararte.

Nola izan leike ori ? Euskara berak oiñarritatik asita daukolako, Euskalerrriaren bizi- ekintzan on-jakintasan guztia, beren erainkintzarako (construccion arquiteonica). Euskeraren adierazkizun garbia eta zeatza batzen daualako Erria ren sinismenetik.

Eta ori, Euskaldunen artean ikusten dana da, adibide bi ipiniaz: alde batetik, Euskaldunen artean ba-gagoz alkar izketan zeaztasun baten gora-berak, ziur egon, egia dana, edo egi-lez ulertzen doguzanak, argi-argi geratuko dirala nai-ta bietatik baten batek on-artu ez; baiña alde bietako arrazoizko ulermencan, argi geratu dala bai !. Eta orretarako ez doguz bear alkar-izketan denbora hizeak, Euskararen UNE edo zentzunak laster kokatzen gaitulako ulermen onean. Beste aldetik: Erritik kanpo gabiltzanean, esan leike gure zentzunezko sokatik aske gabiltzala; sarritan, danoi gertatzen jakulako nigandik asita.

Bai Espainan edo Frantzian ere, esan leike "BULA" egoki bat daukagula orretarako.

Eta orren arrazoia erreza da ulertzea: gauzak ondo egiteko, alegindu bear zaralako arrazoizko edo zentzun-zeaztasuneko gogorapenekin, eta Euskararen zeaztasunak, berak alegintzen edo beartzen zaitulako gauzak ondoen egiteko, norberak jakin barik nundik-nora dato-rran agindu ori.

Niretzat, orren arrazoi bakarra, nai-ta izkuntz-ikerlari-rien bearra izan, erreza da ulertzeko adibide txiker bate-gaz: Gaztelera, astearen egun izenak, ezer ere ez dabe esaten beren ezaguntzagaz, oitura ezberdinco jainkotatik artuta dagozelako :zen oiek; gastelarrak galdera aundi bategaz buru gainean itxita: "LUNES", astearen zentzuz ezertxo ere ez dauana esan gura.

Baiña Euskeraz "ASTE-LEENA-k" esangura zeatza dauka, eta astearen leenengo egunean kokatzen gaitu.

Euskera ren Etxea ez da edozelan jausiko, sinismene-ko etxe-gai onakaz eginda dagoelako.

Gaztelarena eta Frantzezena adibidez, erromatarrak ekarri eben latin menperatzaileagaitik, Godoren izkun-

tza, moruena, eta ez gaitez an astu Euskararekin. Naas-tetasun aundia ikusten dan lez izkuntz orretan, erri sendo bat izateko, eta lotura gitxi daukazenak euren joandako denborarekin berezitasunezkoak izateko.

Orregaitik da curen eta gure artean, ain ezberdintasun aundia ulermenean, Erriak daukan eskubideakaz. Guk, gurea zaindu eta gogortu egin bear doguna biotz guztiaz, askatasuna lortzeko.

Mundu onetan, menperatzaile asko izan dira, erri ezberdiñak eta erritartean naastu egin dauzanak, euren legeakaz jarraitzeko. eta erriaren gainean espatak jarri, ez euren aginduak beteteko bakarrik, bai izkuntz-bereziak desagertu daitezcan, gurea, gaur ekintza orretan dagoana.

Ori da Mundu onetan betiko borroka, eta ori da berezitasunaren ardura nagusia askatasunaren bidean; JAINKOA'ren aurrean, BEREN aginduaren zeaztasunean agertzeko ZORIONA.

Euskalerrriaren Nortasunezko bidetik, ezinezkoa da on-artzea BATZANGO edo GLOBALIZAZIO onen ekintza, menperatzaileala dalako.

Euskaldun Erria, berez askatasun osokoa da, beren UNE askatasunaren amets bizian, bizitzari ebatuta daualako, eta Iparagirre ' gaz Gernikako Arbolakin Munduaren askatasuna gure daualako.

Askatasuna lortu egin bear da eguneroko ekintzagaz; Euskera'rena ere bai, ori dalako, eta or ! daukagulako altxorra lortzeko.

Ziur egon zaitie, BATZANGO edo GLOBALIZAZIO ori on-artzen ba-dogu .....Euskera eta beragaz Euskal-Askatasuna, bai beste erri guztien ere, desagertuko dala.

BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA, EUROPAK daukazan erri-berezi guztiakaz egin bear dan gauza da. Erri bakoitzaren askatasuna lortzeko leenengo, eta benetako BAKEA danon artean. Eta ziur egon zaitie, Mundu onetan dagozan irugarren maillako Erriak, orduan, eta orduan bakarrik, euren egarriak asezteko, benetako laguntza artuko dabela, BEREZITASUNA, ARDURADUNA DALAKO MUGA-BARIK.

Eta emen, azkeneko baztar arloan .....

g) ONDORIOA:

Lan onen sarreran, leenengo ikusi doguna BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA'ri buruz, edestiari laburpen bat eginda: menperatasun ori Erromatarrak ekarri ebela, Kristautasunak askatu gure ebana; baiña Eleiza indarrak gabe geratu zan lez, goi-maillako oiek, nola espataren indarrez 1.945 'erarte iraun eben, DEMOKRAZIA ren kutxa zabaldu zan arte, berezitasunaren eskubideak bere lekuan kokatzeko.

Dana dala, menperatasunezko asmo ori, ez dala oraingo, antziñetik datorrela, jendartearen Nortasunez-

ko ekintza mailladuna izan daiten; eta eurak esaten daben lez: gizon/emakume odol- urdiñak daukien obere-netakoak gaitik bideratuta "POR LA GRACIA DE DIOS".

GAURKO JARRERAREN ARLOAN: Gerla guztiak, menperatasuna sendotzeko izan dira; baiña gaur, Mundu onek dakienagaz, curen guzurra zelan bitzaren antzera gain-gaiñean geratzen dan, danon ikus-lekuan; bai ere, indar guzti onen ostean eta Abertzaltasunari esker, DEMOKRAZIA euri lez agertzen dala.

Azkenean, gaurko BATZANGOA ikertzeko, érazko asterketa bat egin bear izan dogu, nolako asmorekin datorren ekintza ori jakiteko.

a) .- Baztar arloan: AGERTU JAKUN BATZANGOA ZER DAN JAKITEKO..., leenengo ikusi dogu. Kristautasunak Oituraren gaiñean ipini eban Moralak edo Etikak, egaz egin ebela, Ludi onen jendartean ezberdintasun aundiak sortuz, orduan, jakintzara gutxi baiño ez ziralakoko eltzen; eta sasi-jainkotasunerako ain tentaldi aundiak eukinda, nola gaurko erakundeak jokoz kanpo agertzen diran: betiko berezitasuna eta gaurko jakintza, aundia dana, gogorapenean ez dauelako aukiten

Bai BATZANGO au, izugarritzko larderi bat dala, Erria'ren eta gizon/emakumearen Nortasuna ez daualako ontzat artzen, eta eurak beartuta, curen eskuetan ardura guztiak eskuratuz.

Baiña argi ikusi doguna: berezitasunaren aukerazko denborak dirala auek askatasuna lortzeko, arrazoizko lan on-batekin.

b) Baztarrean: ZER IZAN BEAR LEUKE "-BATZANGO EDO GLOBALIZAZIOAK".

Emen ikusi doguna: "Erri-gizon/emakume ezberdin arteko antolamendu edo erabagi on-bat. Aurrera begituta, Ludi onen gizakiak adi egon daitezcan, bear dabezan oinkada onak emoteko, bear diran denboratan. Eta berau ziurtatzeko, erazko asterketa bat egin dautsagu itaun oneri: a) Gizakiaren bearrezko antolamenduak; b) Erria'ren edo Laterria'ren jaurkintzak, d) Erlijiñoak eta e) bastar arloan: Gizakiren artean ordezeko diruan ", bananduta.

d) "Nortzuk izan bear diran BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA'ren arduradunak: Nortasunezko Erri-bereziak izan bear dirala ikusi dogu, Berezitasunaren ardurak, Nortasunezko Bereziak bete bear dituelako.

e) Arloan, LUDI ONEN GIZADIAK DAUKAN NORTASUNA; eta emen: jaio egiten diran guztien Nortasuna eta ardura ikusi dogu, gero Erri-berezietan batuta. Erri-baten seme/alaben Nortasun bereziak, azkenean Erriak batzen dabezelako beren berezitasunean.

f) Azkeneko bastar-arloan, EUSKALERRIAREN NORTASUN BIDETIK, ZER ESAN GURA DAUAN

BATZANGO EDO GLOBALIZAZIO ONEK: eta emen ikusi doguna: Euskalerrriak ta inungo Erri-Bereziak, ezin dauala BATZANGO au ontzat artu, Frankok egite eban lez, goitik beera eginda dagoalako Erri-Bereziak kontuan euki gabe. Erri Bereziak alkartuta izan bear diralako Mundu onetan BATZANGO egi-leak, benetako arduradunak obeto bete egiten dabezelako curen egin-bearrak, NORKERI GUZTIAK ALBORATUTA.

Eta amaitzeko, emen daukagu lan eder bat, Olazar'tar Martin'ek emon eustana eta nik ondorio onetan sartzen dotena, nire lana argiago geratzen dalako alde batetik, eta bestetik, ziurtasunean sendoagotu egiten daualako.

### —ERRIEN BATZANGO EDO GLOBALIZAZIOA—

Munduan diran kulturai edo jakintza-motai begiratzen ba'dautsegu, laster ikusiko dogu jokera bizi-bizi bat: Batzangora edo globalizaziñora jokerea.

Errien sorreran beti izaten dira leinuak. Erriak klan edo sendien alkartzetik sortzen dira. Sendiak ezin dau bere egitekoa bete beste sendi batzukaz batzan izan ezik. Auzoa sortzen da. Auzoak ezin dabe lortu curen elburua bakartadean, erria sortzen da. Erriak ezin dabe lortu curen elburua banaka, eskualdea sortzen da. Eta erriak kultura bat, erlejiño bat, izkuntza bat, lan-era bat, ekonomi bat daukanean, or agertzen da aberria. Eta aberriak nai izan ezkeru laterria sortzen dabe, erromatarrak euki eben antzeko aginterria.

Ona emen adibide batzuk:

Arabeak, Mahoma'ren aurretik, leñuetan bizi ziran eta Mahoma'ren irakatsiak alkartu ebazan, laterri aundia izan arte.

Isiraeldarrak, Jakob'en amabi semeen ondorengo lez, amabi leñutan bizi ziran eta ez ziran erri bat izatera eldu Dabid erregearen-aldira arte. Eta gero be - leñuak curen indarra euken.

Erromatarrak etorri baino lenago Iberia erdi-ugartera begiratzen ba'dogu, leñuak aurkituko doguz: Ilerdarrak, arebakoak, lusitanoak, zeltak, iberoak ... . Ez ziran eldu batzan bizi izatera, erromatarrak dana zapuztu ebelako.

Gure Euskalerrrian be Kristo'ren aurreko idazleak esan euskuen lez, baskoiak, barduloak, karistioak eta autrigoiak bizi ziran, beroiak be urrean.

Batzan edo globalizazioan bizi izateko gogo onek bere alderdi onak daukaz, batez be alkar-laguntza, baina baita beronen alderdi txarrak be. Batzan jokatze-za sartzen danak beti bere nortasunaren zati bat galtzen dau. Orren aurka jokatu bear da beti. Nortasuna ez da galdu bear, guztiak alkartuta bakotzak berea zaindu baino.

## ARAZOAK

Gauzarik ederra da batzango Europa bat, baina aberri bakoitzaren nortasuna, jakintza, ekonomia, izkuntza eta abar galdu barik, onei indar barria emoten jakela.

España'k ori egin ba'edan, gaur Euskalerrria España izango zan bear ba' da, baina españatarren jokoia leku guztietan izan da nagusikeria. Ameriketari ziran jakintza guztiak zapuztuten alegindu ziran eta beti jokatu dabe gure aberriari bere nortasuna kendu eta España'ren batzango globalizazioa sartzeri. Ori ez da benetako globalizazioa edo batzangoa.

Munduko erri guztiak, zelan edo alan, ONU' n batzea nai da. Asmo ederra !. Baina orretarako Munduko aberrien nortasuna kontuan artu bear da.

Ona emen errien arteko batzangoa edo globalizazioa lortzeko ezarri bear diran gitxiengo baldintza batzuk:

- 1º.- Aberriaren nortasuna zaindu.
- 2n.- Batzangoa gogoz sortu eta ez goitik bera ezarri.
- 3n.- Batzango ori apurtzeko eskubidea ez galdu.
- 4n.- Aberri guztiak daukazen balioak onartu. Munduko kultura alkartzeko aberri guztietako jakintzak, izkuntzak, folklorea ta abar indartu bear dira.
- 5n.- Ondasunak bazkide guztien artean zuzen banandu.

Ona emen batzango edo globalizazio onek ekarri dauzan edo leikiguzan ondoren baragarri batzuk:

Ameriketari langin zur bateri bururatu jakon beizainen edo bakeroak deritxen prakak zabaltzea eta ona emen mundu guztian guztiok prakak bardinak eukitearen jokerea. Barregarria benetan, baina asmatzaille arentzat irabazbide izugarria. Batzangoa guztiok bardin jaztea ete da?

Eta beizainen edo bakeroen jazkera bardintsua barre-

garria bada, txandalak alde batera itzita, begiratu daigun zelako prakak baragarriak ikusten diran, mundu guztian bardinak, alde guztietatik boltzaz beterik, lar nasaiegi, dana dariola dagozela dirudi. Baina or dago batzangoa edo globalizazioa? Or ez dago nortasunik.

Espanatarrak, buru jabetza edo autonomia eskatu gendunean, erabagi baragarri bat artu eben, curen izkeraz "cafe con leche para todos". Buru jabetzak guztientzat baina bardinak. Zelan ha! Erri aldeak bardinak ez ba'dira? Zelan ori, batzuk inoz eskatu be egin ez ba'dabe olako ezer?

Eta gaur be orrantza joten dau Aznar'en burubideak. Onek guztientzat beizainen edo bakeroen prakak nai dauz, guztientzat bardinak. Nortasuna? Ori Espana'ren eskubidea da, ez lurraldeena. Iñoz ez dabe ikasi eta, antza dagoanez, ikasiko be ez.

"ANAI-ARREBOK, AU-DA EUSKALERRIAREN AUKERA EDERRENA, ASKATASUNA LORTZEKO"

Eta au da, nik esan-bear izan doten guztia "-BATZANGO" edo GLOBALIZAZINOAREN buruz.

**ATUTXA tar PAUL ZORNOTZAN 2001'ean URRIA'ren II'an**



**ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 18,03 € (3.000 pezeta). Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

# EUSKALDUN BARRIENTZAT



Marrazki onetan ondo begiratzen badozu, 8 ezbardintasun dagoz.





ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO



BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Au da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

200 pezeta (1,20 Euro)

**bbk<sup>2</sup>**